

## BESTELAKO XEDAPENAK

### KULTURA SAILA

## 6041

*EBAZPENA, 2011ko azaroaren 22koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, euskal kultura-ondarea zaindu, aberastu, babestu eta sustatzeko, bai eta hari eragiten dioten hirigintza-plangintzako tresnak sortu eta aldatzeko diru-laguntzak emateko dena.*

Kulturako sailburuaren 2011ko urtarrilaren 12ko Aginduaren bidez (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 13. zk, urtarrilaren 20koa), euskal kultura-ondarea zaindu, aberastu, babestu eta sustatzeko diru-laguntzak, bai eta hari eragiten dioten hirigintza-plangintzako tresnak sortu eta aldatzekoak, emateko araubidea ezarri zen.

Eskabideak aurkezteko epea, aipaturiko aginduaren 6. artikulua dioenez, 2011ko otsailaren 21ean amaitu zen.

Aginduko 9. artikuluan aurreikusitako Balorazio Batzordea bildu eta eskabideak aztertu ondoren, laguntzak esleitzeko ebazpen-proposamena eman zuen 2011ko ekainaren 15ean, eta horrekin batera, Aginduaren 20. eta 26. artikuluen arabera balorazio-irizpideak aditzera eman zituen.

Balorazio Batzordeak egindako proposamena ikusita eta Aginduaren 10. artikuluan eta gainerako xedapen orokorretan ezarritakoarekin bat, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren eskatzaileei bertan agertzen diren diru-laguntzak ematea.

Bigarrena.– Diru-laguntza ukatzea II. eranskinean agertzen diren pertsona eta erakundeei, bertan azaltzen diren arrazoiak direla eta.

Hirugarrena.– Ez sinatzea inongo lankidetzeta-hitzarmenik Kultura Sailaren eta diru-laguntza honen onuradun diren zaharberitzeko hirigintza-sozietateen artean.

Laugarrena.– Onuradunak diru-laguntzak arautzen dituen Aginduak ezarritako baldintzen mende geratzen dira, bai eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorren mende ere.

Bosgarrena.– Diruz laguntzeko jarduera guztiak amaitzeko epea 2013ko abenduaren 31n bukatuko da, Agindu arautzailearen 3. artikuluekin bat. Dena den, diruz lagundutako proiektuek 2011ko urtealdian hasi behar dute edota dagoeneko hasiak egon, eta, gainera, honako amaiera-data eduki beranduenez:

- 2011n gauzatzeko proiektuak: 2011ko abenduaren 31 baino lehen.
- 2011-2012an gauzatzeko proiektuak: 2012ko abenduaren 31 baino lehen.
- 2011-2013an gauzatzeko proiektuak: 2013ko abenduaren 31 baino lehen.

Behin dirulaguntza emanda proiektua gauzatzeko epea ezartzen denean, epe hori luzatu egin ahalko da Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bitartez. Horretarako, erakunde interesdunak luzapena eskatu beharko du, hasieran emandako

epea amaitu baino lehen. Eskabidearekin batera, luzapenerako arrazoiak justifikatzeko idatzi bat aurkeztuko du, baita nahi duen epearen proposamena ere. Nolanahi ere, epe berri horren muga 2013ko abenduaren 31 izango da.

Emandako diru-laguntzen justifikazioa, likidazioa eta ordainketa egiteko, Agindu arautzailearen 14. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Bidezko dokumentazioa Euskal Kultura Ondarearen Zentroan aurkeztu beharko da, 2 hilabeteko epean lagundutako jarduera amaitzen den egunetik kontatuta, baina edozein kasutan, diruz lagunduko diren proiektuak justifikatzeko epeak honako hauek dira, gehienez ere:

– 2011n gauzatzeko proiektuak: 2012ko abenduaren 28 baino lehen.

– 2011-2012 urteetan gauzatzeko proiektuak: 2011n gauzatutako jarduerak, 2012ko otsailaren 28a baino lehen; 2012an gauzatutako jarduerak, 2013ko otsailaren 28a baino lehen.

– 2011-2013 urteetan gauzatzeko proiektuak: 2011n gauzatutako jarduerak, 2012ko otsailaren 28a baino lehen; 2012an gauzatutako jarduerak, 2013ko otsailaren 28a baino lehen; 2013an gauzatutako jarduerak, 2014ko otsailaren 28a baino lehen.

Diruz lagundutako jardueren exekuzioa justifikatzeko, ebazpen honetan agertzen den aurrekontua hartuko da ardaztat, eta horrekin batera aintzakotzat hartuko dira dagokion diru-kopurua eta agindu arautzailearen 14. artikuluko gainerako alderdiak.

Seigarrena.– Agindu horren kargura emandako diru-laguntzak atalka ordainduko dira, prozedura honi jarraituta:

a) Lehenengo zatian, emandako diru-laguntzaren ehuneko hogeia (% 20) ordainduko da, behin 11.1 artikuluan aipatutako epea igaro ondoren, betiere berariaz uko egiten ez bazaio.

b) Gainerako kopurua ordainduko da laguntza emateko ebazpeneko I. eranskinean adierazitako moduan, aurrez gastua justifikatu ondoren.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen berri interesdunei ematea.

Zortzigarrena.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikulua ezartzen duenarekin bat.

## AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio Kulturako sailburuari hilabeteko epean, interesdunek ebazpena jasotzen duten egunaren biharamunetik kontatuta edo, hala badagokio, Euskal Herriko agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 22a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburordea,  
ANTONIO RIVERA BLANCO.

2011ko abenduaren 16a, ostirala

I. ERANSKINA  
EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

II. KAPITULUA.- EUSKAL KULTURA ONDAREA ZAINITzea, ABERASTEa, BABESTEa ETA SUSTATZEA

Onuraduna	Proiektua	Diruz lagundu daitekeen jardueraren zenbatekoa	Diruleguntzaren zenbatekoa	2011	2012	2013
Durango Merinaldeko Adiskideen Gerediaga Elkartea	Merioaren ibilbidean dauden monumentu eta monumentu-multzoak balioztatzea	16.496,00	16.496,00	3.299,20	13.196,80	
Aguraingo udala	Zapatari kalean zoru eskuratzea (Azkarraga dagoen lursaila)	17.995,00	17.995,00	3.599,00	14.396,00	
Balmasedako udala	Horkasitas jauregiaren instalazio orokorrak jartzea	254.229,51	254.229,51	50.845,90	84.420,61	118.963,00
Beasaingo udala	Igartzako errota berrerabiltzea eta balioztatzea	41.350,15	41.350,15	8.270,03	16.540,06	16.540,06
Bilboko udala	Bilboko Elorrieta saneamendurako gune ponpatzaille zahararren instalazioa berreskuratzea eta balioztatzea	259.836,00	259.836,00	51.967,20	63.434,00	144.434,80
Busturiko Udala	Sollubeko estazio megalitikoak babestea eta balioztatzea (Busturia-Sukamieta-Mundaka-Bermeo)	37.270,30	37.270,30	7.454,06	10.900,00	18.916,24
Iruña Okako udala	Errausteko Labea balioztatzeke lurrak erostea	250.000,00	250.000,00	50.000,00	132.830,81	67.169,19
Karrantza Haranako udala	Karrantzako monumentu megalitikoak balioztatzea. III., IV. eta V. faseak	64.734,80	64.734,80	12.946,96	19.003,92	32.783,92
Laguardiako udala	Barbacana urmael zeltiberiarra museo bihurtzea. 3. fasea	217.000,00	217.000,00	43.400,00	53.637,00	119.963,00
Ortuellako udala	Ortuellako Siderita Errausteko Labeak balio anitzeko eraikin moduan berrerabiltzea	283.120,88	283.120,88	56.624,18	106.533,70	119.963,00
Urizaharreko udala	Lurra erostea eta eranskin itsusgarri bat eraistea, Erdi Aroko harrisiko hego-atea balioztatzeke	233.294,27	233.294,27	46.658,85	66.672,42	119.963,00
Zeraingo udala	Aizpeako meategien ingurua balioztatzea: tunela berrerabiltzea eta mea eraldatzeko lanteria	138.390,84	138.390,84	27.678,17	50.055,99	60.656,68
Santa Maria Katedrala Fundazioa	Vitoria-Gasteizko Aiztozile kaleko 93 zenbakia zaharberritzea, haren erabilera aldatzeke	59.000,00	59.000,00	11.800,00	19.600,00	27.600,00
Serora klarretairrak (San Pedro monasterioa)	Harrisia balioztatzea, erabilera berriak jartzeko	249.328,80	249.328,80	49.865,76	79.500,04	119.963,00
Iraurgi Lantzen SA	Munoandi herririkka gotortuko aztarnategiko pinuak mozteko lanak	69.057,24	69.057,24	13.811,45	22.282,79	32.963,00
Bernedoko Administrazio Batzarra	Bernedoko harrisi ondoko lurrak erostea, bertako txabolak eraisteko	149.400,00	149.400,00	29.880,00	29.337,00	90.183,00
Labrazako Administrazio Batzarra	Parrokia-elizako kanpandorra egokitzea, goiko lanternan sartzeko	37.347,50	37.347,50	7.469,50	29.878,00	

2011ko abenduaren 16a, ostirala

Onuraduna	Proiektua	Diruz lagundu daitekeen jardueraren zenbatekoa	Dirulaguntzaren zenbatekoa	2011	2012	2013
Orbela SL	Done Jakue Bideko elementuak balioztatzea: Laprastegiko gaitzada (Mendata), Bekoerrotako gaitzada (Munitibar), Zarandoako San Salbador (Larrabetzu)	35.910,00	35.910,00	7.182,00	28.728,00	
Tolosa Lotzen SA	Azokaren eraikina haurreskola moduan erabiltzeko zaharberritzeko lanak	93.644,83	93.644,83	18.728,97	36.952,86	37.963,00
Guztira		2.507.406,12	2.507.406,12	501.481,23	877.900,00	1.128.024,89

## III. KAPITULUA.- EUSKAL KULTURA ONDAREARI ERAGITEN DIOTEN HIRIGINTZA-PLANGINTZAKO TRESNAK SORTZEA ETA ALDATZEA

Onuraduna	Proiektua	Diruz lagundu daitekeen jardueraren zenbatekoa	Dirulaguntzaren zenbatekoa	2011	2012	2013
Artziniegako udala	Artziniegako eta Erretes Tudelako Barne-eraberritzeko Plan Berezia berrikusteko diru-sariak 2. fasea.	24.834,18	24.834,18	24.834,18		
Balmasedako udala	R-4 Tenerías bizitegi-lurzoruko hiritarrekoko eraikitza unitatearen Hiri Antolamendu Plan Berezia idaztea	42.126,00	38.330,45	7.666,09	10.400,00	20.264,36
Bilboko udala	Parte Zaharreko ondare urbanistiko katalogatua Babesteko Plan Berezia idaztea	48.144,00	48.144,00	9.628,80	10.400,00	28.115,20
Getariako udala	Getariako hirigune historikoaren Plan Berezia idaztea	2.546,63	2.546,63	2.546,63		
Legazpiko udala	Legazpiko ondare urbanistiko katalogatuaren Plan Berezia idaztea	80.240,00	73.010,38	14.602,08	11.300,00	47.108,30
Laudioko udala	Ermuko Andre Mariaren Santutegiaren multzoa eraberritzeko Plan Berezia	29.945,26	27.247,19	5.449,44	2.500,00	19.297,75
Oiartzungo udala	Arditurri ingurunearen Plan Berezia idaztea	39.440,00	35.886,46	7.177,29	6.500,00	22.209,17
Guztira			249.999,29	71.904,51	41.100,00	136.994,78
Guztira, zaintzea eta planeamendua			2.757.405,41	573.385,74	919.000,00	1.265.019,67

## II. ERANSKINA

## BAZTERTUTAKO ESKAERAK

## II. KAPITULUA - EUSKAL KULTURA ONDAREA ZAINZEA, ABERASTEA, BABESTEA ETA SUSTATZEA

1.1.- Aginduan eskatzen den moduan, kalifikatu eta inbentariatu gabe dauden elementuetan edo babesteko espedientea hasteko espedienterik ez duten elementuetan egin beharreko esku-hartzeak direlako. Hori dela eta, honako hauek ez dira baloratu:

- Eskoriatzako udala: Ondare historiko-arkeologikoa inbentariatzea eta balioztatzea (Atxorrotz multzoan esku-hartzea eta gizarteratzea).
- Laguardiako udala: Laguardiako hiribilduaren erreten edo ibai nagusiaren bideratze historikoa ikertzea eta berreskuratzea.
- Estibalizko Ama elkarteak: Arabako erromanikoa ezagutzeko zentro bat sortzea, Estibalitzen.
- Arraia-Maeztuko udala: Geltoki zaharraren eraikineko estalkia birgaitzeko lanak.
- Artziniegako udala: Barratxu zubia egokitzea eta konpontzea.
- Belauntzako udala: Iturriandi garbilekua eraberritzea.
- Leintz-Gatzagako udala: Santa Kolunbako basiliza birgaitzea, Gatzaren Museoko bisitariarentzako informaziogune gisa.
- Laudioko udala: Interpretaziogune eta zerbitzugune berriaren proiektua idaztea, bai eta instalazioak eraistea ere (Ermuko Andre Mariaren Santutegia Berreskuratzea).
- Bergarako udala: Errekalde lorategia berreskuratzeko aurreproiektua eta proiektua idaztea.

1.2.- Agindu honetako 2. artikuluan dirulaguntza jasotzeko moduko kasuak ez izategatik, zeren eta ondare higikorra zein higiezina zaharberritzeko eta birgaitzeko lanak baitira, eta horiek foru aldundien eskumenekoak baitira (Lurralde Historikoei buruzko Legea, 7. artikulua).

- Areatzako udala: Areatzako monumentu-multzoan termitak hiri-mailan kudeatzeko eta kontrolatzeko jarduketara plana.
- Urduñako udala: Urduñako Foru Plazako pinoiak balioztatzea.

- Sociedad Bilbaína de Recreo SC: «Sociedad Bilbaína»-ren eraikina kontserbatzea (Fatxadak eta estalkiak birgaitzea; barrualdeak, altzariak eta beirateak zaharberritzea).
- Elgoibarko udala: Elgoibarko udaletxeko solairuartekoa egokitzea.
- Segurako Ama Jasokundearen eliza: San Sebastian basilizako teilatua birgaitzea.
- Aguraingo udala: Hegoekialdeko hormatala zaharberritzea (antzinako judutar auzoa - Chiquito Atea).
- Santa Maria Katedrala Fundazioa: Transeptuko kripta egokitzea.
- Santa Maria Katedrala Fundazioa: Santa Maria Katedraleko dorrearen barne-egokitzea.
- Alaizako Jasokundearen eliza: Eliza barrutiik argizatzea eta tximistorratza jartzea.

1.3.- Aginduko 17. artikuluan jasotako kasuetan sartzen ez diren proiektuak izateagatik.

- Aiaratur-Aiarako Harana eta Goi Nerbioiren inguruko Informazio Turistikoa: Sailkatutako eta katalogatutako eraikinen inbentario digitala egitea, haien kontserbazioa eta zaharberritzea bultzatzeko.
- Ruiz de Olano Fernández, María: Arabako Industria Ondarearen gaineko erakusketa bat ekoiztea.
- Zeraingo Udala: Bolatokia erostea.
- Otxandioko udala: Andikona Plaza eraberritze-proiektua balioztatzea.
- Antofñanako Administrazio Batzarra: Antofñanako harresiko Ipar Dorrearen eraikina erostea.
- Zeraingo Udala: Aizpeako meategiko lurrak eta ondarea erostea.
- Elorrioko udala: Elorrioko kultura-ondarearen pasealekua argiztatzeko proiektua idaztea.

Aiarako Informazio Turistikoaren Elkartek aurkeztu duen eskabidea dela eta, esan beharra dago katalogoa jada behar bezala jasota dagoela Kultura Ondarearen Euskal Zentroan, eta ez dela ekarpen esanguratsurik egiten.

Bestalde, deialdi honetatik kanpo dago Arabako Industria Ondarearen gaineko erakusketa baten ekoizpena, María Ruiz de Olano Fernándezen eskabidea alegia.

Laguntza-deialdi honek ez du hartzen bere baitan eraikinen erosketarik, esaterako Zeraingo bolatokia edo Antoñanako harresiko ipar-dorrearen erosketak.

Otxandioko udalak aurkeztutako proiektuari dagokionez, II. faseko jarduerak –2011n gauzatu beharrekoak, alegia– ez dira sartzen diru-laguntzak arautzen dituen aginduaren esparruan, zeren eta plaza eraberritzeko jarduerak baitira (zoladura altxatzea, hiri-instalazioak, zoladura berria, eskultura-proiektua) eta liburu bat argitaratzeko lanak.

Elorrioko udalak aurkeztu duen eskabidea dela eta, (Elorrioko kultura-ondarearen pasealekua argiztatzeko proiektua idaztea) esan behar da argiztapena ezin dela agindu honen helburutzat jo, ez baita sartzen monumentu-multzoa balioztatzeko proiektu global batean.

Azkenik, lurrak erostea, berez, ez da agindu honen xedea (Zeraingo Aizpeako meategiaren kasuan hori eskatzen da).

1.4.- Agindu arautzailearen 20.1 artikuluan ezarritako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik.

- Segurako udala: Zerkalde handitzeko hiri-proiektua egiteko behar diren lurrak erostea.
- Mutiloako udala: Errotatxo errota egokitzea eta berrerabiltzea.
- Lenbur Fundazioa: Azpikoetxea errota balioztatzea, etorkizunean Paperaren Museoa izan dadin.
- Kanpezuko udala: Las Casas de Abajo kaleko harresiaren inguruko lurrak erostea eta urbanizatzea.
- Tolosa Lotzen SA: Euskal Herria plazako 1 B zk.-ko eraikina birgaitzea, erabilera berria emateko.
- Elorrioko udala: Argiñetako nekropolia balioztatzea.

### III. KAPITULUA.- EUSKAL KULTURA ONDAREARI ERAGITEN DIOTEN HIRIGINTZA-PLANGINTZAKO TRESNAK SORTZEA ETA ALDATZEA

- Irungo udala: Irungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren katalogoa egitea.

Irungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren barruan dagoen kultura-ondareari buruzko katalogo bat da, eta ez izaera propioa duen udalaren kultura-ondarea arautzen duen hirigintza-dokumentu bat.

- Bilboko udala: Bilbo Zaharreko ondare urbanistiko katalogatua babesteko Plan Berezia.

Agindu arautzailean ezarritako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik.